



Honako idazkia bione bere tramiterako
..... Sallera
Pase el presente escrito al Negociado de
Secretaria..... para su trámite
Recebo
LASARTE-ORIA... 2016 MAY. 05.
IDAZKARI OZKORRAK

LASARTE-ORIAKO APARKALEKUEI BURUZ LASARTE-ORIAKO EHBILDUK AURKEZTEN DUEN MOZIOA

Lasarte-Orian kotxeak aparkatzeko arazoa dagoelaren iritzia oso zabaldua dago bai lasarteoritar eta bai beste herrietatik etorritakoen artean. Inpresio horrek bere islada izan zuen 2013an Udalak egin zuen inkestan, zeinean aparkalekuen eskasia arazo aipatuenetakoen artean agertzen zen. Inpresioak objetibatze aldera eta, hala badagokio, arazoari irtenbidea emateko unean oinarri sendo eta ahal den errealena edokitzeko 2014. urtean Udalak Lasarte-Oriako Trafiko eta Aparkalekuei buruzko azterketa Tekniko bat eskatu zion enpresa enpresa bati. Lan hori egin zen eta 2015eko udaberrian jaso zuen Udalak, bertan, azterketaren emaitzaz gain, arazoari irtenbidea emateko zenbait proposamen jasotzen direlarik.

Legegintzaldi honetan gaiari eutsi eta eginda dagoen lana baliatu eta jarraipena emateko eskatu izan dugu Zerbitzu eta Obretako Batzordean, aparkalekuen arazoari irtenbidea emateko lanean jartzea, alegia. Arazo hau herrian dugula alderdi guztiok jakitun izanik, herriarengan eta herritarrengan aparkalekuen inguruko alternatibak denon artean eta herritarrekin adostuta izatea beharreko ikusten dugu.

Horregatik guztiagatik, Lasarte-Oriako udalbatzarrak honakoa adosten du:

- 1.- Aparkalekuen inguruan 2014ean egin zen lana eta auzoz-auzo herritarrei aurkeztea, lana eguneratu beharra dagoela baloratu izanez gero horrela eginda.
- 2.- Aparkalekuen arazoari irtenbidea emateko alternatiba desberdinak aztertzea. Honetarako, teknikoki lanean jasotako alternatibak baloratu eta aztertzea eta alderdi politiko desberdinen, herritarren eta herriko elkarten ekarpen eta proposamenak jaso, aztertu eta baloratzea.
- 3.- Herritarrekin batera, herritarrentzako alternatiba egokiak adostu eta onartzea partehartze prozesu baten bidez.

EHBildu Udal Taldea

Lasarte-Orian, 2016ko maiatzaren 5ean